

A. Zatarain laguntzaile jaunaren etorri ezinez, idazkariak irakurtzen du hark bidali duen idazkia, "Garitaonandia'tar Bittor neure gogoan" izenekoa. Jose Arrue apaiz jaunak, "Bitor Garitaonandia idazle eta kazetari". Eta, azkenik, Iñaki Beobide laguntzaile jaunak, "Bitor Garitaonandia antzerkigile". Guztiak jaso dituzte entzuleen txalo beroak.

Bilkura bukatzean, Idazkari-ordeak, Bizkaiko Aurrezki Kutxak onharu berri duen "Bitor Garitaonandia" Antzerki Saria iragartzen du. Kutxa honek Euskaltzaindiari babesten dion sariketa honetarako 100.000 pezeztartar jartzen ditu, eta lanak bidaltzeko epea Uztailaren 22an amaitzen da.

Herriko bibliotekan Bitor Garitaonandiaren musika eta idazlanen erakusketa ireki da, Elizaurrean, Bitor Garitaonandiaren omenezko oroitarrria agertu da, eta ondorean Zaldibarko Koral Elkarteak "Agur Jaunak" kantatu du eta talde berekoek Durangaldeko "Dantzari-dantza" eskaini dute.

Anaitasunezko bazkaria, eta arratsaldeko bostetan, parrokian, elkarrekin, Zaldibarko koralak Garitaonandiaren musika lanak kantatuaz.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1976 - III - 27

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1976ko martxoaren 27an, eguerdiko ordu batean, bildu dira: L. Villasante buru, A. Arrue, X. Diharce (Iratzeder), A. Irigaray, P. Lafitte, L. Mitxelena eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; G. Alfaro (Lantziri), P. Altuna, X. Aranburu, M. Atxaga, K. Esnal, J. Estornés Lasa, N. Etxaniz, J. Fdez. Setien, J. Garmendia Kortadi, S. Garmendia, J. I. Goikoetxea (Gaztelu), J. Intxausti, J. M. Iriondo, X. Kintana, E. Knörr, J. A. Letamendi, J. L. Lizundia, J. Oleaga, M. Ruiz Urrestarazu, J. M. Torrealdai, I. de Urquijo, eta A. Zatarain, euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martín idazkari dela.

Dassance, Davant, Haritschelhar, Larre, Larzabal eta Lojendio jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Donostiako eta Loiolako Herri Irratiak antolatu duten "24 orduak euskaraz" delakoaren programako sail bat batzar honekin hornitzen denez, gai berezizat hautatu dira "Komunika bideak" eta, beren eskariz, gurekin ditugu Euskal Herriko lau Diputazioetako ordezkariak.

Mahaiburuan: Euskaltzainburu jauna, lau diputatu jaunak, Arabako Diputaziotik, Iz. de Opakua, Hagurahingo alkate jauna; Bizkaikotik, Mendibil, Gordexolako alkate jauna; Gipuzkoakotik, Aiestaran, Orioko alkate jauna; eta Nafarroatik, Iturralde, Baztango alkate jauna; J. M. Satrustegi moderatzaile eta idazkaria.

Euskaltzainburuaren agurrezko hitzak ireki dute batzarra. Eguneko betebeharrari jaramon eginez, Euskaltzaindiko batzarra lehen aldiz ematen dela irratiz eta une gogoangarri hontatik berriz ere aditzera ematen du oraintsuko Euskaltzaindiaren nortasun onartzea. Eta, lau Diputazioe-

tako ordezkarietara esker ona erakutsi ondorean irratietan agurtzen ditu.

Jose Maria Ayestaran Gipuzkoako diputatu jaunak eta Julio Iturralde Nafarroako diputatu jaunak agurrezko hitzak irakurri dituzte, euskara eta Euskaltzaindiaren lana goratuaz, eta diputatu nafarrak errepikatzen du euskarak ematen digun anaitasuna eta Euskaltzaindia lau Diputazioen batean duten instituzio bakar bezala ematen digun elkarganako lotura. Ondorean, Anjel Ibáñez de Opakua Arabako diputatu jaunaren ordez M. Ruiz Urrestarazu jaunak irakurri du arabarren agurra.

J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak, mugazandik Madaleine Jauregiberry andere euskaltzain ohorezkoari gaur bertan egiten zaion omenaldia gogoratzen digu eta honegatik mugazandiko euskaltzain batzuen etorri ezina, beren artean Haritschelhar buruordezkoarena eta gaixorik aurkitzen den J. M. Lojendiorena. Eguneko gaia adierazten du, Komunikabideak eta gai honi buruz jardungo diren euskaltzain laguntzaile berrien izenak eta berek sarrera gisa dakarten txosten izenburuak aurkezten ditu.

Hasteko, J. M. Iriondo Loiolako Herri Irratiko *speaker*-ari ematen dio hitza: "Irratigintza eta euskara" izeneko txostena irakurri du honek, euskara irratiaren noiztik eta zer mailatan erabilia den adiarazten duena. Nekazariarekin pentsatuaz hasi zen aspaldiko lan hura orain kaleko zabalkundeetara gehiago begiratuaz datorrela, lehengo txolarte tipi haiekia egun osoz euskaraz ematera arte.

Gexan Alfaro jauna (Gezan Lantziri bezala ezagunagoa duguna) ifarraldeko kazetari eta irratietan hizlari denak mugazandiko berriak ematen dizkigu, "Euskara Ipar Euskal Herriko irratiaren" izeneko txostenaren bidez, zer mailatan erabiltzen den euskara Baionako irratiaren eta zelako eragozpenak aurkitzen dituzten adiarazten du.

Mikel Atxaga kazetari eta Zeruko Argia asterokoaren zuzendaritzakoak "Komunikabideen beharra" izeneko txostena agertzen du, aintzina-koetatik hasiaz kazetaritzaren historiara eta hemendik gaurko egunak arte ekarri duen bidea, honen beharra eta euskarazkoaren zabalkundearen haztearen neurria euskara beraren beharra gehitzen denez.

Anaitasuna aldizkariaren zuzendari den Joan Maria Torrealday jaunak "Euskal komunikabideak gaur eta bihar" aztertzen ditu, kulturaztearen aurrerapenak euskal aldizkarietara eman dien eragina eta gure aste-kerriak nola behar diren erdarazkoak bezain onak izatea, baina kazetaritzaren profesionalizatu beharra agertzen du eta irratiaren eta telebistaren lan gehiago egin beharra agertzen du.

Azkenez, Xabier Aranburu "La Voz de España"ko kazetari eta Donostiako Asociación de la Prensa elkartearen buru denak "Euskara, erdal egunkarietan" gaidun txostena, aldi batean euskarak izan zituen eragozpenak, honen historia eginaz, eta euskarazko lanak argitaratzen dituzten egunkari-ien izenak eta hauen noiztikakoa markatzen ditu. Euskal Herriko 215 tituludun kazetarietatik hamar bakarrik direla euskara dakitenak. Baita ere, aztertzen ditu erdal egunkarietan euskaraz erabiltzen diren gaiak eta erak, kazetaritzaren berri emaketik baino literaturagintzatik hurbilago daudenak.

J. M. Satrustegi jaunak, zenbait oharren artean, hartu diren agurren berri ematen du.

Idazkariak goizeko bileraren berri ematen du. Otsaileko eta martxoaren 6ko batzar agiriak onartu dira. Zaldibarko udaletxeko agintariei esker-erak ematea, Bitor Garitaonandiaren omenaldia antolatzeko eman ziguten laguntzagatik; Euskaltzaindiaren legezko nortasunez Zaldibarren Euskaltzainburuak irakurri zuen txostenaren kopiak zabaldu dira; Nafarroako Foru Diputazioari eskerrak ematea Euskaltzaindiaren ordezkaritza jartzeagatik, eta erabagi bezala, ordezkaritzaren buru J. M. Satrustegi jauna izendatu zen, batzordea izendatzea gerorako utziaz; M. Oreja jaunagandik euskal izeneri buruz hartu den oharra irakurri da; orainarte aztertutako aditz sintetikoak aztertu eta onhartu ziren, Mitxelena jaunak egindako oharra kontuan hartuta. Lan honi segida emateko falta diren aditz sintetikoen zerrenda batzordekoen eta euskaltzain osoen artean zabalduko da beren oharra egin ditzaten.

Idazkari-ordeak irakasle titulurako egongo diren etsaminen berri eman du, eta Gasteizen Odon de Apraiz euskaltzain ohorezkoari egingo zaion omenaldiaren berri, zeren omenaldi honetan Euskaltzaindia izango da Arabako Diputazioaren Consejo de Cultura-rekin batean antolatzaile.

Jose Maria Olaizola, Gipuzkoako diputatu eta kultura saileko buru denak hitz egin du, duela denbora guti Madrid-eko Ateneo-an euskarazko hitzaldi batera nola joan zen eta teknika hiztegiari buruzko gaidun hitzaldi hartatik argi ikusten zuela euskara ez dela baserritarrena bakarrik eta gazte kementsurik eta jakitunik badela euskararen indar-berritzeko lanetan, eta honek ematen diola euskarari itxaropen berri bat. Hitzok, bere aita eta gure laguntzaile zen Jose Olaizolaren olerki bat irakurritz bukatu ditu.

Amaitzeko, Xabier Diharce "Iratzeder" jaun euskaltzaina eta Belokeko Abatak mugazandiko euskaldunen agurrezko hitzak eskaini dizkigu, eta J. M. Satrustegi eta L. Villasante jaunek Donostia eta Liolako Herri Irratikoei eta "24 orduak euskaraz" antolatzen lagundu duten guzietan eskerrak emanez bukatzen dute.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1976 - IV - 30

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1976ko apirilaren 30ean, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, X. Diharce, P. Lafitte, E. Larre eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. M. Aranalde, X. Aranburu, M. Atxaga, J. Garmendia Larrañaga, S. Garmendia, J. Intxausti, E. Knörr, I. Laspiur, J. L. Lizundia, J. A. Retolaza, J. Zaitegi, A. Zatarain eta J. J. Zearreta laguntzaile jaunak, J. San Martín idazkari dala.

Arrue, Davant, Larzabal eta Lojendio jaunak ezin etorria adiarazi dute.